

DESKRIBAPENA

Guk egingo dugun produktua arbelak garbitzeko gailu bat izango da. Hezkuntzara eta osasunera bideratuta dago; izan ere, ikasleak gara eta badakigu zeintzuk diren eskoletan dauden beharrak. Gainera, eskolen beharrak asetzeaz gain, irakasle eta ikasleen osasun prebentzioa hobetzen saiatzea interesgarria iruditzen zaigu.

Arbel baten gainean (tradizionala edo markagailuzkoa) jartzen den gailu automatikoa da eta haren helburua arbelak modu azkar, praktikoa eta seguru batean garbitzea da.

Gailu honek 3 fase ditu. Lehenengoan, hau arbeletik zehar jaitsi egiten da, beheko partea arbelaren muturrean kokatzerarte. Bigarrenetan, gailuaren behealdean dagoen barratik likido garbitzailea ihintzatu egiten da. Azkeneko fasean, gailua berriz ere igo egiten da eta beheko barrak duen gomaren bitartez arbela guztiz garbitu egiten da.

Gure produktua aplikazio baten bitartez kontrolatzen da. Aplikazio hau eskuragarri egongo da gailu guztietan eta haren instalazioa dohainik izango da. Aplikazio honek hainbat funtzio ditu, arbelaren garbitasuna errazteko eta guztietara moldatzeko.

Gailua sekzioetan banatuta egongo da bi sekzioetan eta aplikazioaren bitartez irakasleak erabaki dezake zein sekzio hautatu, arbela osoa garbitu behar ez izateko erabili ez bada. Garbiketa moduak: garbiketa azkarra eta garbiketa sakona.

Motorraren sistema behar bezala funtzionatzeko router bat kokatu beharko da instituzioko pasilo bakoitzean 3-4 arbela konektatu ahal izateko. Horrela, arbeletan dauden motorrak routerreara konektatuta egongo dira, eta aplikazioaren bidez gailua kontrolatu ahal izango da modu errazean.

Horrez gain, gure produktuak ere olana bat izango du, jaistean arbela osoa estaltzen duena. Honekin, arbelean egin beharreko proiektzioak gure produktua baliatuz egin ahalko dira eta ez da beharrezkoa izango bete gailu bat izatea arbelaren gainean.

Esan bezala, gure oinarritzko helburua garbitzaile honekin da irakasleen lana erraztea eta hauen zein ikasleen osasuna hobetzea; izan ere, badira asko klarionen zein markagailuen hautsari alergia dioten pertsonak.

Alergiak substantzia kaltegabeen aurrean sistema immunologikoaren gehiegizko erreakzioa dira. Hau da, klarionen edota errotulkien hautsari alergia dioten pertsonen gorputzek egiten dutena da hauts partikulak haien gorputzean sartzean, haien sistema immunologikoak horren kontra erreakzionatzen du, patogeno kaltegarri bat izango balitz bezala.

Klariona eta errotulkien kasuan, arnasketaren bidez sartzen dira kaltetuaren gorputzean eta hortaz, arnasketa alergenok direla esan daiteke. Horrek eragiten du alergia duten pertsonen txistu-arnasaren, arnas infekzio maizen, SFRS eta afoniaren, besteak beste, prebalentzia handiagoa dute.

“Bartzelonako Osasun Globaleko Institutuak” argitaratutako ikerketa baten arabera “Ikerketa zientifiko batek erakusten du asmaren % 6ko prebalentzia, goiko arnasbideetako sintoma maizen (FRS) % 25eko prebalentzia eta ahots urratuaren prebalentzia % 50ekoa dela azken urtean eskola-irakasleen artean”. Horren kausak klarionaren erabilera-praktika desberdin batzuei zor ahal zaiela ondorioztatzen da, hala nola ezabagailua astintzea, maiz erabiltzea eta/edo klariona egunean hiru ordu baino gehiago erabiltzea.

Hala ere, instituzioetako irakasleak ez dira kaltetuak dituen bakarrak; izan ere, ikasleak ere izan daitezke kaltetuak klarionen eta errotulkien hautsa dela eta. Egia da badaudela hautsik gabeko klarionak baina hauek ere arazoak sor ditzakete esnari alergia dioten ikasleengan. Hau gertatzen da klariona mota honek kaseina izeneko esne-proteina bat izaten duelako askotan, eta horrek arnas arazoak sor ditzake esne-alergia duten haurrengan, “Annals of Allergy, Asthma & Immunology” aldizkariak azaltzen duen modura.

INFORMAZIO ITURRIAK:

Health Day (13 maiatza 2013)

<<https://www.healthday.com/health-news/allergies/some-blackboard-chalks-might-spur-allergies-in-kids-study-676073.html?utm>>

Bartzelonako Osasun Globaleko Institutua (14 ekaina 2011)

<<https://www.isglobal.org/-/chalk-causes-respiratory-problems-for-teachers>>

Science Direct

<<https://www.sciencedirect.com/science/article/abs/pii/S1081120613001002>>

La Hiperactina, Youtube (20 martxoa 2022)

<<https://www.youtube.com/watch?v=QneDdkDyLpQ>>